



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailak 13

Vitoria-Gasteiz, 13 de septiembre de 2016

Lehendakaritza

GIZA ESKUBIDEEN RENÉ CASSIN SARIAREN DEIALDIA EGIN DUTE

Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur onartu du René Cassin sariaren aurtengo deialdia egitea. Sari hori Jaurlaritzak ematen du Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez.

Sari horren helburua da publikoki goraiatu eta saritzea ibilbide pertsonal nahiz profesionalarekin gure gizartean giza eskubideak sustatzeko, defendatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren lekukotza ematen duten pertsonak eta taldeak.

12.000 euroko diru-zenbatekoak eta ohorezko aipamen batek osatuko dute saria eta alor horretan nabarmentzen diren pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuek jaso dezakete saria.

Hautagitzak aurkezteko epea hilabetekoa da, deialdi ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunean kontatzen hasita.

Saria Eusko Jaurlaritzak sortu zuen eta Rene Cassin jaunaren oroimenez ezarri zen sariaren izena. René Cassin Baionan 1887an jaiotako legelari eta epaile bat izan zen, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren inspiratzaile nagusia izan zena 1948an, eta 1968an Bakearen Nobel saria eman zioten; Giza Eskubideen Estrasburgoko Nazioarteko Institutua sortzeko baliatu zuen Nobel saria.

Herri Administrazioa eta Justizia

GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU DU *BIZKAIKO INGENIARI TEKNIKO INDUSTRIALEN ELKARGO OFIZIALAREN* IZENA ALDATZEA

Eusko Jaurlaritzak gaur baimendu du *Bizkaiko Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialaren* izena aldatzea, eta horren ordez *Bizkaiko Ingeniari Tekniko Industrialen eta Industri-adarreko Ingeniaritzako Graduatuen Elkargo Ofiziala* deitzea.

Aldaketa eragin du lizentziaturak ordezkatu dituzten graduako titulazio berrietara egokitu beharrak, Bolonia prozesura moldatzeko, bai eta beren izenetan graduatuaren titulazioa jadanik sartu duten beste elkargo eta kontseilu batzuen inplikazioak ere. Zuzenketa, bestalde, jadanik sartuta dago Elkargoak berak Herri Administrazio eta Justizia Sailari estatutuak aldatzeko aurkeztu zion eskaeran ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Kontseiluaren eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren aldeko txostenak aurkeztuta eta eskatutako zuzenketak eginda, Gobernu Kontseiluak adierazi du justifikatuta dagoela elkargoak sustatutako eskaera eta dekretu bidez onartu du izen-aldaketa.

Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

NEKAZARITZA, ELIKAGAIGINTZA ETA ARRANTZA SEKTOREETAKO IKERTZAILE ETA TEKNOLOGO GAZTEENTZAKO BEKA-PROGRAMAK

Eusko Jaurlaritzak 2017. Urterako Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreetako beka deitu ditu, arlo zientifiko-teknologikoan, merkatuetan, marketinean eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologo gazteen prestakuntza sustatzeko.

Deialdi honetako hamaika beka prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako programakoak (doktoratu aurrekoak) dira, eta hamar beka teknologo gazteak prestatzeko programakoak, hain zuzen ere.

Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzen kasuan, kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eta luzatzeko aukera izango da urtetik urtera gehienez ere lau urtez.

Teknologo gazteak prestatzeko programara bideratutako laguntzei dagokienez, denek bi urteko iraupena izango dute.

Bi kasuetan, laguntza-eskaerak irailaren 22tik urriaren 22ra aurkeztuko dira, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako edozein bide erabil daiteke.

Interesa dutenek edozein programatan eska dezakete laguntza, eta gehienez ere 3 proiektu aukeratu daitezke Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak lehentasunezko eta estrategikotzat jotako I+G+B proiektuen zerrendan jasotako guztien artetik. 2017ko bi programetarako informazio gehiago: www.nasdap.ejgv.euskadi.eus web orrialdean.

Laguntza hauetarako 1.066.520 euroko aurrekontua izendatu da.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

770.000 EURO LANBIDE HEZIKETAN BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILTZA PROIEKTUETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran Agindu bat onartu du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak proposatuta; aipaturako Aginduaren bidez, 2016-2017 ikasturtean, Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeetan garatu beharreko berrikuntza eta ekintzailtza-proiektuak egiteko diru-laguntzak deitzen dira. Proiektuok, Lanbide Heziketako IV. Planak definitzen dituen ildo estrategikoekin bat etorri beharko dute.

770.000 euroko diru kopuruarekin, deialdi honen xedea da Lanbide Heziketako zentroetan berrikuntza aplikatu eta ekintzaileko proiektuak egitea diruz laguntzea, irakasleak erabat edo partez liberatzeko aukera emanda, 2016-2017 ikasturtean aipaturiko proiektu horiek gauza ditzaten.

Proiektuok garatzerakoan jaso den ezagutza hori ikasleenganaino iristea ere helburu izango da, bai eta Euskadiko gainerako Lanbide Heziketako ikastetxeetara eta enpresetara iristea ere, Enpresa Txiki eta Ertainetara bereziki.

Euskadiko itunpeko ikastetxe pribatuek eskatu ahal izango dituzte diru-laguntza horiek, baldin eta 2016-2017 ikasturtean erdi eta goi-mailako Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak itunduta badituzte.

Lanbide Heziketako IV Euskal Plana ekoizpen-sektoreetan nahiz produktibitatearen alorrean gertatzen ari diren aldaketa handiei erantzuna ematea helburuz jarri zen abian. Horretarako, plan honek eredu bateratu berri bat bultzatu nahi du Lanbide Heziketan, funtsezko hiru elementu hauetan oinarritua: heziketa integratua, berrikuntza aplikatua eta ekintzailtza aktiboa. Elementu hauei gehitu behar zaizkie, euskal Lanbide Heziketaren nazioartekotzea, eta Lanbide Heziketa eskaintzen duen ikastetxe motaren eraldaketa.

Ingurumena eta Lurralde Politika

GOBERNU KONTSEILUAK DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREKIKO HITZARMENA ONARTU DU “DEUSTO CITIES LAB KATEDRA” PROIEKTURAKO

Gobernu Kontseiluak Deustuko Unibertsitatearekiko hitzarmena onartu du “*Deusto Cities Lab Katedra*” proiekturako. Hirigintzari buruzko proiektu horrek ikerketako, garapeneko, berrikuntzako eta ekintzailetzako hiri-laborategiak sustatzea eta prestakuntzako, ikerketako, dibulgazioko eta sentsibilizazioko, zabalkundeko eta proiektzio sozialeko jarduerak egitea du helburu. Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu Ana Oregiren hitzetan, “nazioarteko ezagumendua duten ikertzaileen arteko lankidetzak eta inguruko eta munduko beste eskualde batzuetako beste erakunde batzuekiko lankidetzak ahalbidetuko du akordioak”.

DEUSTO CITIES LAB KATEDRA proiektuaren arduraduna DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO jarduneko irakasle bat izango da, doktore titulua eta unibertsitatearekin kontratu-harreman egonkorra duena, prestigio ezagutukoa eta garrantzizko ibilbide akademikoa duena.

2016ko ekitaldirako, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak 25.000 euroko zenbatekoa bideratuko du hitzarmenerako. Deustuko Unibertsitateak katedraren funtzionamenduan lagunduko du unibertsitateko langileen elkarlanarekin, eta katedrari esleitutako lokalak eta haren jarduerak garatzeko erabiltzen diren azpiegiturak eta unibertsitate-zerbitzuak mantentzeaz arduratuko da.

GOBERNU KONTSEILUAK ASETRAVI ELKARTEARENTZAKO DIRU- LAGUNTZA ONARTU DU, SALGAIEN GARRAIOKO ENPRESABURUEN XVI. KONGRESUA ANTOLATZEKO

Gobernu Kontseiluak Asetravi - Bizkaiko Garraio Enpresen Elkartearentzako 16.700 euroko diru-laguntza onartu du, Bilbaon urrian egingo den Salgaien Garraioko Enpresaburu XVI. Kongresua antolatzeko. Salgaien Garraioko Espainiako Konfederazioak (CETM) garraioan eta logistikan aritzen diren 31.000 enpresa inguru biltzen ditu. Ia 200.000 langile dira guztira eta probintziako 48 erakunde biltzen ditu.

Sailburu Ana Oregik zuzentzen duen sailaren babesa izango duen kongresuan, salgaien garraioarekin, enpresaburu garraiolariaren balioarekin eta foru-mailako, autonomia-erkidegoko, estatuko eta Europako garraio-politikarekin erlacionatutako hainbat txosten egingo dira, eta zamalanetako enpresen, operadore logistikoen eta garraiolarien hainbat esperientzia azalduko dira. Hori guztia osatzeko, garraioaren eta logistikaren sektoreari lotutako enpresek ibilgailuetan eta garraioko materialean izan diren azken berrikuntzak jarriko dituzte erakusgai

Ingurumena eta Lurralde Politika

GOBERNU KONTSEILUAK DBU SENTZAKO (“DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA”) DIRU-LAGUNTZA ONARTU DU, BAT-BARIK-MUGI TXARTELEN ELKARRERAGINGARRITASUNA EZARTZEKO

Gobernu Kontseiluak Dbusentzako (“Donostiako Tranbia Konpainia”) diru-laguntza onartu du, 200.000 eurokoa, bi urtetan ordaintzekoa, Bat-Barik-Mugi txartelen elkarreragingarritasuna ezartzeko. Sailburu Ana Oregik adierazi duenez, “gure gobernu-programan jasota dagoen Euskal Autonomia Erkidegoan garraio-modu publiko guztietarako bidaia-txartel bakarra ezartzeko helburuaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila BAT-BARIK-MUGI garraio-txartelen Elkarreragingarritasuneko Master Plana garatzen ari da, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako garraio-sistema publikoen esparruan burutu behar diren jarduketak definitu eta baloratzen dituen, Euskal Autonomia Erkidegoan gaur egun dauden hiru tarifa-sistema integratuen (BAT, BARIK eta MUGI) arteko elkarreragingarritasuna lortzeko”.

“Master Plan horretan aintzat hartzen zen lurralde historikoetan hainbat proiektu pilotu abian jartzea: Araban, Vitoria-Gasteizko tranbian, gaur egun hiru txartelak erabil daitezke; Bizkaian, Bilbaoko tranbian, gaur egun hiru txartelak erabil daitezke; eta Gipuzkoan, Donostia / San Sebastiangoko hiri barruko autobusetan (DBUS), gaur egun ezartzen ari da”, zehaztu du Ana Oregik.

Sailburu Ana Oregik gogorarazi duenez, “2016ko maiatzaz geroztik elkarreragingarritasuna ezarri da Euskotrenen Linea Orokorrean —funtsezko elementua da elkarreragingarritasunaren barruan— Gipuzkoako eta Bizkaiko lurraldeetan, bi lurraldeetan zehar banatutako geltokietan eta haietako edozeinetan sartzeko eta irteteko aukerarekin. Era berean ezartzen ari da elkarreragingarritasuna Metro Bilbaon. Izan ere, gaur egun Bat eta Barik txartelak erabil daitezke eta Mugi txartela ere aurki erabili ahal izango da. Halaber, hiru txartelak elkarreragingarriak dira Larreinetako funikularrean”.

Aurreikusitako hurrengo mugarrira elkarreragingarritasuna DBUSen ezartzea da. Izan ere, Gipuzkoan bidaiari gehien mugitzen dituen operadorea da, ia 30 milioi erabiltzaile ditu-eta.

Laguntza berri horren bitartez, Eusko Jaurlaritzak berrehun mila euroko ekarpena egingo du: 2016. urtean 10.000 euro izango dira eta 2017. urtean 190.000 euro.

Presidencia

CONVOCADO EL PREMIO RENÉ CASSIN DE DERECHOS HUMANOS

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria para este año del Premio René Cassin que concede el Ejecutivo vasco, a través de la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos.

El objetivo de este premio es reconocer públicamente y premiar a aquellas personas o colectivos que, a través de su trayectoria personal o profesional, dan testimonio de su compromiso en la promoción, defensa y divulgación de los derechos humanos en nuestra sociedad.

Podrán optar a este premio, dotado con 12.000 euros y una distinción honorífica, todas aquellas físicas o jurídicas, públicas o privadas que se destaquen en este ámbito.

El plazo de presentación de las candidaturas es de un mes, a partir del día siguiente de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

El premio fue creado por el Gobierno Vasco en 2003 y debe su nombre a René Cassin, jurista y juez nacido en Bayona en 1887, considerado como el principal inspirador de la Declaración Universal de los Derechos Humanos y merecedor en 1968 del Nobel de la Paz, premio que consagró a la creación del Instituto Internacional de Derechos Humanos de Estrasburgo.

Tradicionalmente el premio es entregado el 10 de diciembre, fecha en la que se conmemora la Declaración Universal de Derechos Humanos.

Administración Pública y Justicia

EL CONSEJO DE GOBIERNO DA LUZ VERDE AL CAMBIO DE DENOMINACIÓN DEL “COLEGIO OFICIAL DE PERITOS E INGENIEROS TÉCNICOS INDUSTRIALES DE BIZKAIA”

El Gobierno Vasco aprueba el cambio de nombre del “*Colegio Oficial de Peritos e Ingenieros Técnicos Industriales de Bizkaia*” por el de “*Colegio Oficial de Graduados en Ingeniería de la Rama Industrial e Ingenieros Técnicos Industriales de Bizkaia*”.

El cambio, motivado por la necesidad de adecuación a las nuevas titulaciones de grado que sustituyen a las licenciaturas en adaptación al proceso de Bolonia, responde también a la implicación de otros Colegios y Consejos que ya han incluido en sus denominaciones la titulación de graduado y graduada. La corrección, además, está incluida en la solicitud que el propio Colegio presentó al Departamento de Administración Pública y Justicia para la modificación de sus estatutos.

Presentados los informes favorables del “*Consejo de Peritos e Ingenieros Técnicos Industriales del País Vasco*” y del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad, y una vez realizadas las correcciones requeridas, el Consejo de Gobierno, considera justificada la solicitud promovida por el Colegio y aprueba, mediante decreto, el cambio de denominación. Este Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Desarrollo Económico y Competitividad

PROGRAMAS DE BECAS PARA PERSONAS JÓVENES INVESTIGADORAS Y PARA TECNÓLOGAS Y TECNÓLOGOS DE LOS SECTORES AGRARIO, ALIMENTARIO Y PESQUERO

El Gobierno Vasco convoca para el ejercicio 2017 ayudas dirigidas a fomentar la formación de personas jóvenes investigadoras y tecnólogas en áreas científico-tecnológicas, mercados, marketing y organización empresarial de los sectores agrario, alimentario y pesquero de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Concretamente se convocan once becas del Programa de personas jóvenes investigadoras en formación (predoctorales), y diez becas del Programa de Formación de jóvenes tecnólogas y tecnólogos.

En el caso de ayudas destinadas a personas jóvenes investigadoras en formación, la duración del contrato será de un año, prorrogable por períodos anuales sin exceder de cuatro años.

Respecto a las ayudas destinadas al programa de formación de jóvenes tecnólogas y tecnólogos, todas son otorgadas con dos años de duración.

El plazo de presentación de solicitudes de ayudas en ambos casos será desde el 22 de septiembre hasta el 22 de octubre, y se pueden solicitar por cualquiera de los medios previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas.

Las personas interesadas podrán pedir ayuda en cualquiera de los programas, pudiendo elegir hasta un máximo de 3 proyectos, de entre todos los recogidos en la relación de proyectos de I+D+I considerados de carácter estratégico y prioritario por el Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad, para ambos programas en 2017: Más información en www.nasdap.ejgv.euskadi.eus

El presupuesto destinado a la financiación de estas ayudas asciende a 1.066.520 euros.

Educación, Política Lingüística y Cultura

770.000 EUROS PARA PROYECTOS DE INNOVACIÓN Y EMPENDIMIENTO EN LA FORMACIÓN PROFESIONAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, una Orden por la que se convocan subvenciones para la realización de proyectos de innovación y emprendimiento a desarrollar en el curso 2016-2017, en centros concertados que imparten ciclos formativos de Formación Profesional alineados con la estrategia definida en el IV Plan Vasco de Formación Profesional.

Con un importe global de 770.000 euros, esta convocatoria tiene por objeto la financiación de la liberación total o parcial de personal docente de los centros privados concertados para que éstos puedan desarrollar, durante el curso académico 2016-2017, los proyectos de innovación aplicada y emprendimiento alineados con el IV Plan Vasco de Formación Profesional. Estos proyectos habrán de posibilitar, a su vez, la transferencia del conocimiento adquirido en el desarrollo los mismos al alumnado, al resto de centros de Formación Profesional del País Vasco como a las empresas, en especial a las Pymes.

Podrán acogerse a estas subvenciones los centros privados de Euskadi que, en el curso académico 2016-2017, tengan concertados ciclos formativos de grado medio y superior.

El IV Plan Vasco de Formación Profesional da respuesta a los grandes cambios que se están produciendo en los sectores productivos y en el ámbito de la productividad. Para ello, impulsa un nuevo modelo combinado de Formación Profesional, compuesto por tres elementos fundamentales: la formación integrada, la innovación aplicada y el emprendimiento activo. A estos elementos se les suma la internacionalización de la FP vasca, y la transformación del tipo de centro que imparte Formación Profesional.

Medio Ambiente y Política Territorial

CONVENIO CON LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO PARA EL PROYECTO “DEUSTO CITIES LAB KATEDRA”

El consejo de Gobierno ha aprobado un convenio con la universidad de Deusto para el proyecto “*Deusto Cities Lab Katedra*” relativo al urbanismo con la promoción de Laboratorios urbanos de investigación-desarrollo-innovación-emprendimiento y la realización de actividades de formación, investigación, divulgación y sensibilización, difusión y proyección social. Según la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, Ana Oregi, “el acuerdo posibilitará la colaboración entre personal investigador de reconocimiento internacional y con otras instituciones del entorno y de otras regiones del mundo”.

La persona responsable del proyecto DEUSTO CITIES LAB KATEDRA será una profesora o profesor de la UNIVERSIDAD DE DEUSTO en activo, que ostente el título de Doctor o Doctora, y con relación contractual estable con la Universidad, de reconocido prestigio y con una trayectoria académica relevante.

Para el ejercicio 2016 el Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial destinará para el Convenio, la cantidad de 25.000 euros. La Universidad de Deusto contribuirá al funcionamiento de la Cátedra con la colaboración de personal de la Universidad, asumiendo el sostenimiento de los locales asignados a la Cátedra, así como, infraestructuras y servicios universitarios que sean utilizados para el desarrollo de sus actividades.

SUBVENCIÓN A ASETRAVI PARA LA ORGANIZACIÓN DEL XVI CONGRESO DE EMPRESARIOS DEL TRANSPORTE DE MERCANCÍAS

El Consejo de Gobierno ha aprobado una subvención de 16.700 euros a Asetravi-Asociación Empresarial de Transportes de Mercancías por Carretera de Bizkaia, para la organización del XVI Congreso de Empresarios del Transporte de Mercancías que se desarrollará en Bilbao en el mes octubre. La CETM agrupa a alrededor de 31.000 empresas dedicadas al transporte y la logística, que emplean prácticamente a 200.000 personas trabajadoras y aglutina a 48 organizaciones provinciales.

En el Congreso, apoyado por el departamento que dirige la Consejera Ana Oregi, se realizarán distintas ponencias relacionadas con el transporte de mercancías, el valor del empresario transportista, la política de transportes a nivel foral, autonómico, estatal y europeo y se pondrán en común diversas experiencias de empresas cargadoras, operadores logísticos y transportistas. Todo ello se verá completado con una exposición por parte de empresas vinculadas al sector del transporte y la logística de las últimas novedades en vehículos y material de transporte.

Medio Ambiente y Política Territorial

SUBVENCIÓN A DBUS, “COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN” PARA LA IMPLANTACIÓN DE LA INTEROPERABILIDAD DE LAS TARJETAS BAT-BARIK-MUGI

El Consejo de Gobierno ha probado una subvención a dBus, “Compañía del Tranvía de San Sebastián”, cuantificada en 200.000 mil euros, a abonar en dos años, para la implantación de la interoperabilidad de las tarjetas Bat-Barik-Mugi. Según la Consejera Ana Oregi “dentro del objetivo de implantar un Billete Único para los distintos modos de transportes públicos en Euskadi recogido en nuestro programa de Gobierno, el Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco, desarrolla un Master Plan de Interoperabilidad de las tarjetas de transporte BAT-BARIK-MUGI que define y valora las actuaciones que deben llevarse a cabo en el ámbito de los sistemas de transporte público de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa para la consecución la interoperabilidad entre los tres sistemas tarifarios integrados actualmente existentes en la Comunidad Autónoma de Euskadi, BAT, BARIK y MUGI”.

“En dicho Master Plan se contemplaban la puesta en marcha de una serie de proyectos piloto en los distintos territorios históricos, concretamente: en Araba/Álava el tranvía de Vitoria-Gasteiz, actualmente operativo el uso de las tres tarjetas; en Bizkaia: tranvía de Bilbao, actualmente operativo el uso de las tres tarjetas y en Gipuzkoa: autobuses urbanos de Donostia (DBUS), en fase de implantación” detalla Ana Oregi.

Según recuerda la Sailburu Ana Oregi “también se ha implantado, desde mayo de 2016, la interoperabilidad en la Línea General de Euskotren, elemento clave dentro de la interoperabilidad, en los territorios de Gipuzkoa y Bizkaia, con estaciones distribuidas a lo largo de ambos territorios y con entrada y salida en cualquiera de los mismos. Del mismo modo se está implantando la interoperabilidad en Metro Bilbao, donde ya es posible el uso de las tarjetas Bat y Barik, y próximamente se extenderá a Mugi. Asimismo las tres tarjetas son interoperables en el Funicular de La Reineta”.

El siguiente hito previsto es la implantación de la interoperabilidad en DBUS, operador que más viajeros mueve en Gipuzkoa, con cerca de 30 millones de usuarios.

La nueva ayuda supondrá la aportación, por parte del Gobierno Vasco, de doscientos mil euros: en el año 2016, 10.000 euros y en el 2017 serán 190.000 euros.